

Poeta klasikoaren bila

Alex Gurrutxaga

Susa etxea osatzen ari den Munduko Poesia Kaierak bilduman argitaratu dute Sophia de Mello poeta portugaldarraren antologia. Inigo Roque hartu du itzulpena egiteko lana, eta bai fin asko burutu ere. XX. mendeko Portugalgo poesiaren gailurreta-koa da De Mello; Fernando Pessoa arekin batera, nahiz eta haren ondotik etorri, poesia modernistaren luma finenetakoa, lirika iradokitzaile eta zehatzaren sortzailea.

Zehatza, De Mello bilatzen zuelako inguratzen zuena doitasunez eramatea paperera. Izadiaren behaketa eta zentzuen bidez hautemandakoaren deskribapena bere jarrera poetikoaren erdigunean daude. Paisaiak birsortzen ditu poetak, urbanoak bazueta, eta gehiagotan natura-koak, desirari eta nostalgiarri lotuta. Lurralde poetiko horien artean, poeta beti itzultzen da itsasora: hondartzak, kaia, on-

tziak, korala edota naufragoak daude, han-hemenka barreiatuak, haren poesian.

Inguratzen duten elementuetariki abiatuz, gauza arrunten atzean ezkutatzen den esentzia bilatzen du Sophia de Mello, ohiko bizitzatik harago iristea nahi genukeenaren transzendentzia, instante orok eternaletik daukana, pertsona bakoitzak jaunkozkotik duena. Eta hori, poesian: «Este é o poema - engano do teu rosto / No qual eu busco a abolição da morte», idazten du Eurydice poeman. Eta hor agertz-



'Munduko Poesia Kaierak. Sophia de Mello'

Egilea: Sophia de Mello. Itzultzailea: Inigo Roque. Argitaletxea: Susa.

tzen da De Melloren telurismoa. Kristautasun berrituaren ildoan, paisaia konkretua unibertsoaren gorpuzte gisa azaleratzen da, eta poetaren desio gorena unibertso-arekin bat egitea litzateke: «nire, itsasoaren, haizearen eta ilargiaren batura»; «Egun batez neu izango naiz itsaso eta hondar/den guztiarekin egongo bategina»; eta bere arte poetikoan esaten duen bezala: «unibertsoarekiko harreman hau da poema poema gisa definitzen duena». Horrela, denbora eta existentzia bihurtzen dira De Melloren gai nagusiak - *Etxe zuria*, *Hilak sendi ditut*, *Denbora zatikatuan*, eta abar-; hala ere, jakina, amodioa - *Hirekin zeharkatzeko mundauren desertua*, *Amodio hil batetik*, eta abar-, aberria - *Apirilaren 25a*, *Iraultza*, eta abar-, edo literatura bezalako gaiak ere lan-tzen ditu - *Lorcaren hilobia*, edo *Zikladeak*, Pessoaen oihartzu-nez beteaa-.

De Melloz esaten da poeta klasiko dela; eta hala da, baina ez da ahaztu behar, formari dagokio-

nez, Modernismoaren ezaugarri behinenak bere egiten dituela poeta portugaldarrak, hala nola bertso librea eta sinestesia -gogoratu behar da, bidenabar, klasi-koekiko maitasuna aipatzen dugunean, lehen Modernismoa oso klasikoazalea izan zela-.

Poema antologia hau orekatu eta interesgarria da, kronologiko-ki antolatua hastapenetako poemetatik azkenekoetara. Pena da edizio hauetan poemen jatorriari buruzko daturik -data, liburua, eta abar- ez egotea batera, oso lagungarria izango litzateke eta hori irakurlearentzat.

Literaturan (ere) berritasuna eta apurketa, ildo berriak zabal-tzea eta gauzak iraultzea estima-tzen dugu egun, ia ahaztuz litera-turari eskatu behar zaion oina-rrizko gauza literatura izatea de-la, ona izatea, alegia. Sophia de Mello ez zen poeta apurtzailea izan, poeta klasikoak baizik -kla-sikoa eragin eta estetizak, eta bai-ta bere burua tradizioan txertat-zeko moduan ere-, baina klasi-koa, batez ere, Aulo Geliok II. mendean hitzari eman zion zen-zezuan: bere dohainengatik eredu-garritzat har daitekeena. Eta ho-rrela izaten dira, eta dira oraindik poeta klasikoak moderno.



'Albaitaritzako idazlanak (1692-1892)'

Egilea: Mongongo Dassanza. Apailatzailea: Txomin Peillen. Argitaratzailea: Euskaltzaindia.

Donibane Lohizunen erremedio saltegi bat zuen Mongongo Dassanza barberu eta botikari lapurtarrak. XVII. mendean jaio zen, eta 1711n hil. 1690 inguruan albaitaritzaz idatzi zuen lapurterazko liburuaren edizio kritikoa apailatu du Txomin Peillenen.



'Kronika txikia'

Egilea: Pablo Antoñana. Itzultzailea: Luis Mari Larrañaga. Argitaletxea: Pamiela.

Egilearen *Pequeña crónica* eleberria (1972) euskaratu du Luis Mari Larrañagak. 36ko ger-raren garaiko jauntxo familia baten gainbehera kontatzen du, Nafarroako izenik gabeko hiri batean, Maria Josefa Marañoñ izeneko neskaarearen begietatik kontatua.



'Erresumaren ilusentia'

Egilea: Mila Salterain. Argitaletxea: Txalaparta.

Durandaldea -bi erresumaren arteko muga- azpikeria politikoen jokaleku da 1190ean. Bertako tenentea, Petro Latrone, Didaco Lupi Harorekin azpilanetan dabil, Gaztelaren eskutik bosterea handitzeko. Nafarroako erregeak, ordea, arretaz zelata-tzen ditu jauntxoak jukutriak.

Katekesi progrea

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Bost urteren ondoren, berriz itzuli zaigu Mariasun Landa Itun Zaharreko kontuekin. Garai hartan Adam eta Evari buruzko anekdota bat asmatuz osatu zuen *Ipurtargiak paradisuan*, eta oraingoan antzeko istorio bat josi du, bi pertsonaia horien kristau aitzindari paperean sakontzeko-edo.

Egiantan, bi liburu horiek ezau-garri askotan berdintzen dira. Ipurtargien hartan ama-alaba batzuen arteko elkarriketa bat zen, eta oraingoan andre ileurdin misterioitsu baten eta jakingura handiko neskatoren artekoa da. Antzekoa bi emakume hel-duen jarrera ere kontakizun horiekiko, pasarte matxista eta asal-dagarriak leundu eta kontakizun politikoki askoz zuzenago bat

iradokitzen. Haur protagonistek ere antzeko izaera dute: abegitsuak, entzuteko eta galdera ego-kiak egiteko pronto. Adin desberdintasuna tarteko, oraingoa apur bat sakonago aritzen da Pa-radisuko gertakarien kausa eta ondorioei buruz, eta esan liteke apur bat filosofikoagoa dela.

Ilustrazio jolas ezohiko bat oparitu digu Odriozola beti txun-digarriak, eta libururi darion katekista usaina apur bat ahazteko balio izan digu.



'Elsa eta paradisua'

Idazlea: Mariasun Landa. Ilustratzailea: Elena Odriozola. Argitaletxea: Giltza.

Bihurrien omenez

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

A maitu berri dute berderatzi alez osatutako Ole Lund Kirkegaard idazle daniarrari buruzko bilduma Sushi Books argitaletxe galiziarrekoek. Eta pozik, oso pozik nago.

Ezohiko idazle horrek haurren bihurrikerien katalogo bat osatu zuen bere obran zehar, liburu bakoitzeko protagonista desberdin baten itzalpean, baina guztietan azio berriak eskainiz. Konparazio baterako, Tom Sawyerren eta Pippi Kaltzaluzeren arteko nahasketa batetik sortutako obra dela esango nuke. Egitura antzekoa zen liburu guztietan, baina ezin esan, hala ere, eboluzio bat egon ez zenik. Azken tituluetan bihurrikerien segidak eskaintzen dira, besterik gabe, baina hastapenetako seietan pertsonaiek

nola-halako ibilbide bat osatzen dute.

Guztietan lehena, 1967an idatzia, *Virgil Txiki* da. Liburu honek gerora hain ohiko bihurtuko ziren ezaugarriak jada erakusten ditu, oinutsik dabilzan, fruta lapurtzen eta bihurrikerietan iaio-ak diren haur herabeen eskutik: «-Zer da atxilotu bat? -galdetu zuen Virgil Txiki.

>>-Kapela moduko bat, uste dut -esan zuen Oskarrek-. Liburu batean irakurri nuen».



'Virgil Txiki'

Idazlea eta ilustratzailea: Ole Lund Kirkegaard. Itzultzailea: Garbina Ugarte. Argitaletxea: Sushi Books.